

ARTURO CAMPION EUSKALTEGIAK 40 URTE

LOGOTIPO LEHIAKETA

IKAko Arturo Campion Euskaltegiak aurtan 40 urte bete ditu. Hori dela-eta, ekitaldi sorta berezia antolatzeko asmoa dugu.

Horrela bada, eta lehenengo pauso gisa, honen berri emateko erabiliko ditugun paper, eskupaper, kartel, iragarki eta gainerakoetan jartzeko irudi bat behar dugu. Irudia, logotipoa... marka grafikoa, azken batean.

Ospakizun honetan ahalik eta jende gehienak parte hartzea nahi dugu, eta, horregatik, "logotipo-lehiaketa publiko" moduko zerbait egitea pentsatu dugu; marrazten edota diseinu kontuetan trebea bazara, presta ezazu logotipo bat eta bidal iezaguzu.

Jasotzen ditugun irudi guztien artean, bozketa eginen dugu euskaltegiko ikasle eta irakasleen artean. Boto gehien jasotzen dituen irudia hartuko dugu geure euskaltegiko 40. urteurrena dela-eta eginen ditugun hitzaldi, festa eta ekitaldi guztien berri emateko, eta pegatinak eta kartelak egiteko. Trukean, geure produktu lote ederra eramanen du irabazleak.



Arauak

- Irudian argi ikusi behar da Arturo Champion Euskaltegiaren 40. urteurrena ospatu behar dugula.
- Irudia euskarri informatikoan entregatu behar da Arturo Champion Euskaltegian edo e-postaz bidali (campion@ikanet.net) otsailaren 8a baino lehen.
- Irudiak gutxieneko tamaina hau izan behar du: 25x20 cm, 250 ppp-ko bereizmena.
- Nahi duenak har dezake parte.
- Otsailaren 9an, euskaltegiko ikasle eta irakasleen artean aukeratuko da zein izanen den irabazlea, aurkeztu diren irudi guztien artean bakoitzak bati botoa emanda. Egun horretan, euskaltegitik kanpoko jendea ere etor daiteke bere botoa ematera.
- Euskaltegiak aurkeztutako irudi guztiak jarriko ditu bere web gunean ikusgai.